


La Revolución Norteamericana

Gordon S. Wood
Mondadori, Bartzelona, 2003, 250 orr.



Kondairako erredakzio kontseiluaren oharra

Euskaraz ez da erraza izaten estatubatuar independentzia eta iraultza moduko gaien inguruko sintesi gaurkoturik aurkitzea. Liburu aipamen honek, ordea, aukera hori eskaintzen digu. Izan ere EHUko historia fakultateko bi ikaslek iruzkindu eta laburtu dute gaien aditua den Gordon Wood-en lana. Hortaz liburu beraren inguruko bi hausnarketa desberdin (eta osagarri) dira, ondo adierazten dutenak ikasle hauen prestakuntza eta oinarriak gure diziplinan barneratzen direnean.

I. Liburuaren lehen iruzkina

I. 1. Liburuaren sintesia

XVIII. mendean zehar Ipar Amerika izan zen, neurri handi batean, Europa jasaten ari zen eztanda demografikoaren irtenbidea. Izan ere, europar askok lur bila, besteak beste, britainiarra zen eremu honetara emigratu zuten. Honela, kolonoez osaturiko gizarte bat garatuz joan zen, mendebaldeko ezaugarri asko mantentzen zituena, baina gutxinaka-gutxinaka izaera bereziko gizartea bilakatu zena. 1760. hamarkadan zehar kolono asko hasi zitzaion koroa ingelesari burujabetasun maila handiagoa exijitzen, eskaera horietako

batzuk izanik biltzarretan parte hartze handiagoa, Londreseko ganbaran ordezkatura egotea, zergen txikitzea eta tokian-tokiko erabakiak hartzeko autonomia zabalagoa izatea. Beste gauza askoren artean, Britainiako parlamentuak ezarritako *azukrearen legea* (1764) eta *tinbrearen legea* (1765) izan ziren harreman anglo-amerikarrak hoztu zituzten faktorerik nagusiak. Hauen helburua, inperioaren diru sarrerak handitzea zen. Lehenengoak zenbait produktuen gaineko muga sariak ezartzen zituen, bigarrenak, besteak beste, zergen ordainketarako paper monetaren erabilera ukatzen zuen. Gizarte amerikarrari kontsultarik egin gabe harturiko neurri hauek, kolonoak koroaren kontra biltzera eramaten zituen. Matxinada antolatuak, produktu britainiarrei egindako boikota eta masen biolentziazko ekintzak izan ziren *tinbrearen legea* akabatu zutenak. Giroa, dena den, ez zen baretu: britainiar gobernuak 1766. urtean gizarte koloniala gogor jotzen zuen beste neurri batzuk hartu zituen, paperaren, tearen, beiraren eta beste produktu batzuen gaineko zerga berriak ezarriz. Honela, zenbait eskualde anarkia eta etengabeko matxinada giroan murgildu ziren, horren adibiderik garbiena Massachusetts izanik (Samuel Adams buru). Urte gutxitan, britainiarrek euren kolonien inguruko kontrola galdu zuten, inperioa krisi sakonean sartuz. Gizarte kolonialaren sektore handi baten iritzia britainiar gobernuaren kontrako bilakatu zen, eta lehen aldiz independentzia bezalako aldarrikapenak entzuten hasi ziren. Egunkari askok haatik, independentziaz libreki hitz egiten zuten. Britainia Handiak hauei guztiei errepresioaren bidetik erantzun zien. Inperioaren berrantolaketa bat egitea geroz eta beharrezkoagoa bilakatzen zen, baina saiakera guztiak kaotikoak izan ziren. Horren adibide dira 1770. hamarkadan komunen ganbarak ezarri zituen *Tearen legea* eta *Lege Koertzitiboak*, iraultza gero eta bistakoagoa egin zutenak.

1770. hamarkadaren hasieran, Amerika jada iraultzarako prestatzen hasia zen. 1774.ean, lehenengo kongresu kontinentalak deitu zen, hamabi kolonietako ordezkariak bildu zituen. Kongresu honetan kolonia bakoitzak bere biltzar estatuala sortzea onartu zen, parlamentu ingelesetik independente arituko zirenak. 1775. urtean Britainia Handiak gerra irekia deklaratu zien koloniei, (1778. urtetik aurrera kolonoek Frantziaren laguntza jasoko zuten). Orduan, bigarren kongresu kontinentalak bildu zen. Honek gobernu zentralaren ardura hartu eta armada kontinentalak eratu zuen (burua George Washington zen). Ez dugu uste behar dena den, kongresuak kolonien arteko batasuna bermatzen zuenik; koloniak estatu independente bezala ulertu behar ditugu, euren arteko harremana oso txikia izanik.

1776. urteko uztailaren 4an, ordezkariak Independentzia aldarrikapena kaleratu zuten. Hala, kongresuak kolonia bakoitzak gobernu organo berria sortzeko aholkua eman zuen, eta urte batean askok konstituzio berria garatu zuten. Hauen helburu nagusia tirania ekiditea izan zen; iraultzak izan ere, oro har tiraniaren eta monarkiaren kontrako sentimenduak ekarri zituen, (koroaren alde egin zuen amerikar asko egon bazen ere). Horregatik denek, Montesquieu-ren aholkuei jarraituz, botere baraketa egitera jo zuten (botere legegile, betearazle eta judiziala bereiztuz eta ganbara bakoitzeko sistema garatuz), hauteskundeak deitu ziren, eskubide zibilak zehaztu zituzten... Ez da pentsatu behar, dena den, sistema demokratiko baten aurrean gaudenik. Izan ere, sufragioak zentsitarioa izaten segitzen zuen eta esklabutza onartzen zen...

Azken batean, giza askatasunaren oinarritzko printzipio asko ez zeuden bermatuta (Independentzia aldarrikapenak ere ez zituen bermatzen). 1781. urtean, kongresu kontinentalak Ameriketako Estatu Batuak izeneko konfederazioa sortu zuen, (konfederazioa artikuluen arabera). Hau, nolana ere, estatu batu bat baino, estatu desberdinen arteko aliantza baten modura ulertu behar dugu, kolonia bakoitzak erabateko burujabetasuna eta subiranotasuna mantentzen zuelarik. Kongresu kontinentalaren funtzioak erabat mugatuak ziren. 1783. urtean, Versailles-ko itunaren bidez Estatu Batuek euren independentziaren nazioarteko onespina lortu zuten, sistema errepublikar bat garatuz.

1787. urtean, konfederazioaren artikulua ordezkatuko zituen konstituzioa idatzi zen. Honek, neurri handi batean, gerra ostean garaturiko klima politiko ezegonkorrari aurre egitea izan zuen helburu, honetarako Amerikako estatu guztien arteko batasun politikoa bermatuz. Izan ere, tokian tokiko biltzar estatalak izaera tiranikoa hartzen hasiak ziren, ezen bertako partaideek interes partikularren alde jotzen zuten. Honek, antolaketaren kaosa zekarren, interesen arabera legeak etengabe aldatzen zirelarik, lege finko batzuk indarrean egon gabe. Modu horretan biltzar hauek teoriarik kongresu zentralaren kompetentziakoak ziren hainbat neurri hartu zituzten. Honi guztiari errepublika jasaten ari zen inflazioa gehitzen zitzaien, gerrako maileguak ordaintzeko neurririk gabeko paper monetaren ekoizpena zela eta. Indigenei dagokionez, hauekin zeuden arazoak gero eta tentsio handiagoa eragiten zuten, ezen hauek gizarte amerikarrean integrazeari erresistentzia agertzen zioten. Halaber, estatuen arteko konkurrentzia handitzen hasia zen; herri askok estatu independente izateko aldarrikapenak egiten zituzten. Esklabutzaren arazoak erabat konpondu gabe jarraitzen zuen, sufragio unibertsalaren aldarrikapenak geroz eta nabariagoak ziren... Hala bada, konstituzio berri baten beharra geroz eta nabariagoa zen. Baina nolako izan behar zuen? Nolako gobernu zentrala eratu behar zen? Eztabaida nagusiak federalen (Madison buru) eta errepublikarren (Jefferson buru) artean gertatu ziren. Azkenik, federalak atera ziren garaile (nahiz eta presidente gisa Jefferson hautatu zen, 1801-1809).

Filadelfian 1787. urtean sinaturiko konstituzio berriak amerikar konfederazioaren antolaketa goitik behera aldatu zuen: egitura federala ezarri zen, gobernu zentralak indar handiagoa hartuz (kanpo politika, fiskalitatea, komertzioaren erregulazioa, etab. bere esku egonik) eta biltzar estatalen kompetentzia eta autonomia erabat txikituz (tokian tokiko gai partikularren erabakiak hartzera mugatuz). Honela, errepublika nazional bat sortu zen, non bi ganbaretan oinarrituriko parlamentua zegoen, botere judizial independentea, eta botere exekutiboa pertsona bakar batek izango zuen (presidenteak). 1787. urteko konstituzioa gaur oraindik indarrean dago Ameriketako Estatu Batuetan.

I. 2. Iruzkina kritikoa

Gai batean aditu ez zarenean, oso zaila suertatzen da behar bezalako iritzirik bat egitea, eta hau da hain zuzen nire kasua. Hausnarketa kritikoa, iritzirik soil bat baino haratago doan argumentazioa behar du izan, baina

horretarako gaiaren inguruko dokumentazio anitza izatea ezinbestekoa da, nik tamalez ez dudana. Hau dela eta, egingo dudan iritzia eta hausnarketa liburuaren inguruan sortu zaidan sentsazioa aditzera ematera mugatuta geldituko da. Izan ere ez dut oraindik nire burua lan sakonago bat egiteko prestatuta ikusten.

Liburuak, oro har, amerikar Independentziaren ezagutza handiagoa izateko aukera eman dit, bertan datu bitxi asko topatzen baitira. Dena den, liburuak aukeratzean lan kritikoago bat topatuko nuela uste nuen, eta ez hainbeste gertakarien inguruko deskribapenak egiten dituen lana. Ikuspegi zabalagoa emango zidan liburuak zela uste nuen, alegia. Historian, oro har, amerikar independentzia aurreko erregimenaren apurketa ekintza gisa aurkeztu izan da, edo behintzat ikuspuntu hori izan da besteen artean gailendu dena. Ezin da ukatu bere garaian amerikar iraultza horrek izan zuen garrantzia eta eragina, baina askotan, askatasunaren ikur bezala hartzen den gertakari honen atzean dauden akatsak ez dira aztertzen. Izan ere, urte askotan zehar zentsitarioa eta oligarkikoa izaten jarraitu zuen erregimen baten aurrean gaude, non esklaboak, indigenak, eskaleak, judutarrak, etab. bigarren mailako herritar kontsideratzen ziren. 1787.eko konstituzioan aho zabalez aldarrikatzen zen askatasunaren definizioa erabat zehaztugabea zen, errealitatean bere praktika ikusten ez zelarik. Aspektu hauei guztiei Gordon S. Wood-ek ez die lehentasunik eman. Aipatu aipatzen ditu, eta bere tokia ematen die, baina ez du sobera hauetan sakontzen. Hauen adibide dira esaterako:

[...] la igualdad republicana no equivalía a la eliminación de todas la distinciones. Las repúblicas seguirían teniendo una aristocracia [...] (145. orrialdea).

[...] algunos historiadores de hoy son más propensos a destacar sus fracasos. Como un joven hisotoriador decía recientemente, la revolución no logró liberar a los esclavos, no logró conceder la ciudadanía a los indios, y no logró crear un mundo económico en el cual todos pudieran competir en igualdad de condiciones [...]” (23. orrialdea).

Horrelako aipamenak egiten badira ere, ez da zehazten zertan zetzan desberdintasun hori, hots, talde bakoitzak zituen eskubideak eta tokia gizartean. Esklaboen egoerari oso atal txikia eskaintzen zaio, eta indioek jasan zuten errepresioa aipatu ere ez da egiten. Garatzen ari zen gizarte berri eta anitz horren inguruko informazio falta sumatu dut, edo behintzat zentzu honetan liburuak ez nau nahiko nukeen moduan ase. Halaber ez da 1787. urteko konstituzioan sakontzen, liburuaren egilea testu honen aspektu politikoak aipatzera mugatzen delarik, errepublikaren barrutien deskribapena egitera, alegia. Konstituzio honen oinarrian dauden aspektu sozialak, juridikoak, etab. ez dira aipatu ere egiten. Are gehiago, konstituzio honek gaur egun indarrean jarraitzen duena dela kontuan izanik, autoreak aukera paregabea zuen egin diren aldaketak aipatzeko, konstituzio horren eboluzioa eta gaurkoarekin dituen aldeak aztertzeke.

Beste atal batzuen ekarpenak ordea interesgarriak iruditu zaizkit, besteak beste erlijioak izan zuen eragina gzarre berri horretan, hau izanik, gobernutik askotan, saihesten ziren berdintasunaren, askatasunaren, boto eskubidearen, esklabotzaren eta emakumearen aldeko aldarrikapenen muina. Dena den, atal honetan, autorearen ikuspuntua erlijio adierazpenek (1760.

hamarkadatik aurrera sortu ziren mugimendu erlijioso berrienenak batik bat), europar eliza katoliko eta kontserbadorearen apurketan izan zuten eragina aztertzeraz bideratuta dago, erlijioaren ikuspuntu berriak inplikatu zuenera hain zuzen ere. Zentzu honetan, erlijioak emakumeen mugimenduan, esklabutzaren abolizioan, eta abarrean izan zuen papera nekez aipatzen dira. Erlijioak izugarritzko eragina izan omen zuen bizitzaren eta oro har munduaren ikuspegi berriaren garapenean, eta garaiko gobernadore kontserbadoreen oposizio nagusienetarikoa izan zen. Tamalez, ideia honetan ez da sakontzen.

Argi gelditzen da, Gordon S. Wood-ek bere lana ikuspuntu deskriptibo batetik bideratu duela, iraultzaren giroaren azpian zeuden hainbat gatazka sozialei begiak itxiz. Egoeraren gertakarien deskribapena egitera mugatzen da batik bat, hausnarketa kritikoa bere barrenean babesten duelarik. Hau, argi agertzen du liburuaren aurkezpenaren atalean: *“Cómo estalló la rebelión, cuál fue su carácter y cuáles sus consecuencias, no si fue buena o mala, son las cuestiones a las que esta breve historia tratará de responder.”* (23. orrialdea).

Jarrera honek liburua irakurri ostean erabat ase gabeko irakurketa baten sententzia uzten duela esango nuke.

Oskia Ramirez Baraze

II. Liburuaren bigarren iruzkina

Liburu honetan, tituluak dioen bezala, Ipar Amerikaren Iraultzak jarraitu zuen bidea deskribatzen da, eta azkenean, nola, Ingalaterratik banatzea lortu zuen. Hala ere, liburua ez da hor amaitzen. Izan ere, behin independentzia lortu ondoren, Ipar Amerika estatu desberdinen artean desantolatua zegoen eta ez zen ia inolako batasun politikorik aurkitzen. Horregatik, estatu desberdinek, guztiak batu eta errepublika handi bat eratzeari ekin zioten. Noski, ez zen batere erraza izan, Ipar Amerikako hamahiru estatuak ez baitzeuden ados.

Idazlea, Gordon S. Wood da (1933-), Tuftseko unibertsitatean lizentziatua eta Harvarden dokortua ateratakoa. 1969tik Broweko unibertsitateko irakasle da, historiako maisu bezala. Ez da lehen aldia gai honen inguruan idazten duena; besteak beste (ezagunenak aipatzearen), *The Creation of the American Republic 1776-1787* (National Book Award sarietarako nominatua) eta *The Radicalism of the American Revolution* (1993an Pulitzer sari ezagunaren irabazle izendatu zutena) idatzi ditu. Beraz, esan dezakegu nahiko aditua dela jakintzagai honetan. Honek, alde aurretiko nolabaiteko sinesgarritasuna ematen diola ezingo dugu ukatu. Hala ere, larrua artza ehizatu aurretik saldu gabe, liburu hau idazteko berak erabili duen bibliografia aztertu dut eta ondoren, lehentxeago esandakoarekin geratzen naiz.

Oso bibliografia zabala aurkezten digu, mota guztietako liburuekin. Iraultza garaian idatzi ziren liburuetatik hasi (*Essays on the American Revolution*, 1973, Stephen G. Kurtz eta James H. Hutson; *The American Revolution*, 1976, Alfred F. Young) eta azken urteetan idatzi direnetaraino (*The*

Transforming Hand of Revolution, 1995, R. Hoffman eta P. Albert). Beraz, nahiko daturen arteko aukeraketa egin du eta emaitza, hau izan da. Pertsonalki, oso interesgarria iruditu zait eta irakurterraza ere bai aldi berean. Beharbada bigarren hau izan da lehenengoa baldintzatu duena, ez dakit. Egia esan, Ipar Amerikaren independentziaren inguruko gaiak beti gustatu izan zaizkit, ez gehiegi irakurri ditudalako, baina bai *Azken Mohikanoa* eta *Abertzalea* (gaiari lotuagoa) bezalako filmak ikusi eta gustatu zaizkidalako. Filmak, esan beharrik ez dago, oso desberdinak dira euren artean, eta baita liburuarekin alderatuz ere. Liburuak, iraultzari buruzko ikuspegi orokorragoa ematen digu, 1760. urte ingurutik hasi eta 1800. urte ingurura arte. Garai zabala da. Norbaitek esango du 300 orritan ongi azaltzeko zabalegia ere badela, baina, nire ustez, autoreak ongi lantzen du: gertakari garrantzitsuenak kontatzen ditu, eta gainera behin independentzia lortu ondorengo urteak ere deskribatzen ditu. Liburua beraz, ez da 1783ko irailaren 3an amaitzen (Britainia Handiak Estatu Batuen independentzia onartu zuenean), baizik eta data horretatik estatuak batu ziren momentura arte segitzen du (eta geroagoko datu batzuk ere ematen ditu). Gainera, denbora tarte horretan gertatutakoa ere, nahiko ongi zatitzen du, bakoitzari duen garrantzia emanez, beti ere, ahalik eta interpretazio objektiboena emanez (kontraesana ez bada behintzat).

Liburua 7 kapitulutan banatzen du. Hasteko, herria iraultzara eraman zuten faktoreak aztertzen ditu, besteak beste, demografi hazkundera eta britainiarren erreformak. Ondoren, faktore horiei kolonoek nola erantzun zieten azaltzen du; eta hortik aurrera, gerra nola piztu zen, konstituzioa nola eratu zen, nazio ideiarekin zabaltea nola gertatu zen, eta behin independentzia lortu ondoren ze aldaketa jazo ziren eta nola jokatu zuten aldaketa horien aurrean. Noski, guzti honek gizartean (erlijio edo hezkuntza bezalako arloetan) izan zuen eragina ere aipatzen da. Beraz, autoreak gaia ikuspuntu egoki batik lantzen duela esatea besterik ez zait geratzen. Ez da liburuan zehar abertzaletasunik nabari, eta ezta jarrera batenganako mesprezurik edota irainik ere. Ez zaio iritzirik eskapatzen (liburua osoki hartuta, bere interesen arabera idatziko zuen, noski) eta nahiko zuzen jorratzen du guztia. Edo hori iruditu zait niri behintzat. Behin liburua amaitzean ez zait burura etorri “autore honi igartzen zaio bai nongoa den edo nola pentsatzen duen” bezalakorik.

Liburua interesgarria eta irakurterraza egiten duen beste faktoreetako bat kontakizunaren linealtasuna da. Ez da batere nahasia. Gauza guztiak ordenan doaz, data asko ematen ditu, eta horrek, norberak bere barrenean egiten duen eskema laguntzen du. Momentu guztian, irakurleak badaki ze urtetan dabilen, eta ordura arteko gertakari garrantzitsuenak zeintzuk izan diren. Alta, noizbait horrela ez balitz ere, monografiaren hasieran kronologia bat eta mapa sorta batzuk ematen ditu, bertara jo eta denboran zein gertakarietan birkokatzeke. Mapena oso ideia ona iruditu zait, batez ere iparamerikarrek mendebaldera egiten duten mugimenduak deskribatzen dituenen, bertan ilustratu baitaiteke.

Liburua irakurri arte nekiena, edonork jakin zezakeena zen: “Washingtonek, amerikarren tropen buru, britainiarren eskuetatik askatu zituela bere herrikideak”. Noski, orain, zertxobait gehiago jakinda, teoria hori hankaz gora jartzeko gai ikusten dut neure burua. Ez nekien independentzia prozesua

20 urtetik gora iraun zuen gertakaria izan zenik edota euren artean hainbeste liskar egon zirenik estatu berriaren norabidea erabakitzerakoan.

Liburuan aipatzen ez den auzi urrietako bat 1763an amaitu zen Frantzia eta Britainia Handiaren arteko gatazka da. Esaten du Kanada aldean-eta arazoak egon zirela, baina azalpen gehiago eman gabe. Kanadako gizartea, Ipar Amerikako hamahiru kolonien aldean, desberdina dela ere aipatzen da liburuan, nahiz eta Britainiarekin lotuta egotean ezaugarri batzuk atxiki. Ingelesen esku erori aurretik, Kanada frantsesen eta espainolen artean banatua zegoen, baina 1763tik britainiar agintepera igarotzeak aldaketak ekarri zituen. Kanadako aldaketak britainiarrek antolatu behar zituzten, eta gainera, gerra gastuei aurre egin behar zieten.

Gastu horiei aurre egin nahian, eta lehenagotik britainiar agintepekoak ziren hamahiru kolonietako ekonomia kontrolatu guran, zergak ezartzen hasi ziren. Kolonia hauek ordea, ez ziren Britainia Handiak munduan zehar sakabanaturik zeuzkanak beste koloniak bezalakoak. Beste lekuekin alderatuz, gehiengoa (nolabait zeresana zuena) europar jatorrikoa zen (azken urteetan Irlanda, Eskozia eta Ingalaterratik joandako jende ugari) eta nahiko alfabetatua gainera. Ondorioz, zerga berriak ez ziren ongi ikusi, "ez dira nor guri zergak ezartzeko, guk parlamentuan errepresentaziorik ez dugun bitartean!". Britainiar agintariak hartu zituzten beste hainbat erabakik ere, ez zuten arrakasta handirik izan, populazioa gorantz zihoan heinean gero eta lur gutxiago geratzen zirelako, eta gobernu berriak indioenak ziren lurretaz jabetzeko aukerarik ez zirelako ematen. Tentsioa nabaria zen. Poliki-poliki, desadostasunak gora egin zuen, matxinadak gehituz eta produktua britainiarrei boikota eginez. Azkenean, independentziaren aldeko lehen ideiak agertu ziren, erregearen gehiegikeriek ordaina merezi zutela pentsatzen zutenak ugaritu ziren heinean.

Britainia Handiak, agertzen ari zen kontrako ideia horiek gelditzeko erabakirik okerrera hartu zuen (ez hain okerra, munduaren jaun eta jabe eurak zirela jakinda, eta etsairik ez zutela pentsatuta): armada. Gorago aipatu bezala, ekintzarik ezagunena Bostongoa izan zen. Bertan armada britainiarrak 5 lagun hil zituen, protesta bat amaitzeko asmoz, eta ekintza honek, izugarritzko oihartzuna izan zuen. Hala ere, hainbat enfrentamenduren ondoren, lasaitasun egoera nagusitu zen, bi urte inguru iraun zituena.

1773an, gobernu britainiarrak *Tearen Legea* ezarri zuen kolonia hauetan, eta honekin arazoak eztanda egin zuen. Hortik aurrera, kolonien eta metropoliaren arteko harremanak okertzen joan ziren. Hemendik aurrera, gauzek okerrera besterik ez zuten egin, eta horren emaitza bakarra izan zitekeen: gerra. 1775eko apirilaren 19ko Lexington eta Concordeko gudak independentzia gerraren hasiera kontsideratzen dira. Lehenengo momentuetan, munduko potentziarik handienak kolonoak arazorik gabe menperatuko zituela ematen zuen. Gainera, Britainia Handiko tropak, harrituta geratzen ziren, euren aurkariak ikusten zituztenean, ez baitzegoen ia soldadu profesionalik. Ofizial gehienak herritar xumeak ziren, normalean euren ofizioetara dedikatzen zirenak: zapatariak koronel bezala, ostalariak kapitain funtzioak betetzen... baina munduaren jabe hark ere, bazeukan bere puntu ahula: bere tropak, gerra gertatzen zen lekutik 5.000 kilometrotara agintzen zituzten; eta hain eremu

zabaletan etengabe eta ordenarik gabe mugitzen ari zen aurkariari egoera haietan aurre egitea ia ezinezkoa zen. Gerra hartan, George Washingtonek izugarriko garrantzia izan zuen, eta amaitzean, bere ospea izugarria izan zen. Bere asmoa, ez zen tropa britainiarrekin aurrez aurre borrokatzea (nahiz eta horrelakoak ere gertatu), baizik eta eraso txikiak egitea, eta batez ere britainiarren janari eta edari bideak moztea.

1776ko uztailaren 6an, Kongresuko ordezkariak, Independentziaren aldarrikapena onartu zuten. Hau, batez ere, Thomas Jeffersonek idatzi zuen, eta bertan, erregeari botatzen zitzaion, 1763tik ordura arte gertatutakoaren erru guztia. Kongresuak, kolonia bakoitzari gobernu berriak eratzeko eginkizuna eman zien, herriaren izenean. Horrela, estatu bakoitzak, bere konstituzioa idatzi zuen, errepublika desberdinak eratuz. Eta badaezpada ere, (Montesquieu-ren eredu jarraituz), hiru zatitan banatu zuten boterea (legegile, betearazle eta judizial). Honekin, gobernuaren tirania (ordura arte erregearen pertsonan ikusten zutena) ezabatuko zutela uste zuten.

Gobernu zentralari buruz, ez zegoen desadostasunik, beti ere, boterea herriaren gain mantentzen bazen: estatu bateko herritar guztiek, eskubide berberak zituzten. Konfederazio berriak ordea, gobernua bakar bat baino, estatu burujabeen aliantza zirudien, eta horregatik, Kongresuan eztabaidek asko iraun zuten, ez baitziren ados jartzen. Eztabaida horiek, batez ere, lur berrien gainekoak ziren, estatu bakoitzak bere interesak baitzituen: batzuk, aurretik jasotako kontzesioak zituzten, eta beste batzuk, kontzesio horiek guztien mesedetan erabiltzea lortu nahi zuten. Azkenean, lur horien agintea, Kongresuari utzi zitzaion, eta haietan etorkizunean sortuko ziren estatu berriei, beste guztiei adinako eskubideak emango zitzaizkiela zin egin zuten

1777 bukaeran, Frantziak (ordura arte ezkutuko laguntza ematen ari zen) britainiarren aurka egitea pentsatu zuen. 1779an, Espainia batu zitzaion kolonoen bandoari, eta 1780an borbondarren esku zeuden Europako hainbat estatu (baita Errusia ere). Handik urtebetera, 1781eko urriak 19an, Cornwallis britainiar jenerala, Yorktown-en errenditu zen, gerrari amaiera emanez.

Azken zati honetan, argi ikusten da liburuak garrantzi handia ematen diola gerra gertakariei. Aldiz liburuan ez dira hainbeste lantzen hitzarmen politikoen edukiak, konstituzioenak... Aipatzen dira, bai, baina bigarren plano batean.

Behin independentzia lortu ondoren, estatu berrien sorrera etorri zen (horregatik izan zen iraultza politikoa). Ondorioz, nortasun berri baten hasi ziren. Amerikarrek, antzinako Grezia eta Erromako ereduera jo zuten; ez bakarrik gobernu bat eratzeko asmoarekin, baizik eta euren literatura, gizartea, arkitektura... berreskuratzeko asmoarekin. Iraultzaile askok pentsatu zuten, Ipar Amerika, munduko tiraniaren aurkako lurraldea bihurtzeaz gain, munduko literatura eta arte guztien zentroa bilakatuko zela. Horrela, Homerok egin zuen bezala, istorio handiak kontatzen hasi ziren, eta eraikuntza berriak Grezia klasikotik kopiatzen (Etxe Zuria...). Ipar Amerika, *letren errepublika* izendatu zuten, bertan zegoena bere talentuari esker zegoela zioten, eta ez monarkietan

bezala, gurasoen tituluei esker. Honek, berdintasunaren aldeko iritzia bultzatu zuen populazioaren artean.

Mugimendu hauek, hezkuntzarekin lotutako beste hainbat ondorio ere ekarri zuten: ikastetxeak eraiki ziren, osasun zerbitzu berriak sortu, zientzialari talde berriak agertu ziren, eta hamaika liburu, aldizkari eta egunkari berri argitaratu ziren. Gainera, ordura arte arraroak ziruditen erakundeak ugaritu ziren: pobreei laguntza ematen zietenak, gaizkileak erreformatzen saiatzen zirenak, natura zaintzen zutenak, ONG desberdinak, etab. Esan beharra dago, baita, iraultzaren ondoren, emakumeak gizartean garrantzia hartzen joan zirela (mugimendu feministaren abiapuntu). Hasiera batean, oso zaila izan zuten, baina apurka-apurka, erlijio, kultura eta politikako hainbat sektoretan, emakumeen izenak agertzen hasi ziren. Honi, beste gertakari bat gehitu behar zaio: koroaren aldeko jendetzaren ihesaldia. Uste da, populazio zuriaren %20 izan zitekeela. Batez ere, gizarte maila altuko jendea zen, eta eurek utzitako hutsunea laster aprobetxatu zuten beheragokoek, bai politika mailan eta baita lur jabetzari zegokionean ere. Beraz, gizarte mailan ere, iraultza eman zela esango nuke nik, edota gutxienez, aldaketak egiteko bideari hasiera eman zitzaiola.

Ekonomia aldetik, gerra guztiak egiten duten bezala, honek ere izugarritzko suntsiketa ekarri zuen. Hegoaldea izan zen, beharbada, gehien sufritu zuena. Merkataritza ere, erabat desegonkortu zen, eta hau, bat-batean sortu ziren hainbat merkatarik berri ederki aprobetxatu zuten. Hala ere, laster etorri zen, gerra osteko inflazioa. Estatu berriek, ez zuten zergarik ezarri nahi, eta Kongresuak ez zeukan horretarako indarririk. Beraz, diru sarrerak lortzeko, estatuak zorpetzen hasi ziren, eta hori ordaintzeko, paperezko dirua etengabe isurtzen. Inflazio honek, batez ere, merkatarik eta nekazariei egin zien mesede, euren produktuak merkaturatzen hasi baitziren. Azkenean iraultzak Ipar Amerika izugarritzko merkatal garapen batea eraman zuela esan daiteke.

Guztia, ordea, ez zen ona izan. Ipar Amerikaren independentziak norbaitentzat ondorio txarrak izan bazituen, indioentzat izan zen. Tribu askok, Britainia Handia defendatu zuten gerra garaian, eta noski, gerra galdu zutenean, inolako babesik gabe geratu ziren. Baina ez eurak bakarrik, orokorrean indio guztiak hartzen ziren etsaitzat, eta izugarritzko sarraskiak egon ziren. Horretaz gain, 1780ko hamarkadan eman zen populazioaren hazkunde ikaragarriaren ondorioz, jendea lur berrien bila abiatu zen. Lur berri horiek, indioenak ziren, baina horrek ez zuen gehiegi axola. Gizon zuriek eta indioek luraren jabetza era desberdinean ikusten zuten. Batzuen ustez, lurra etengabe ustiatu behar zen, besteen ustez ordea, eremu zabaletan ibili behar zen bertako animalia desberdinak harrapatzen, eta lurra lantzeko, emakumeak erabili behar ziren. Nahiz eta Kongresuak indioak zaintzeko erabakia hartuak zituen, gizon zurien erantzuna zera izan zen: "lurrik ez badute behar, guk hartuko ditugu". Eta horrela, poliki-poliki, indio guztiak akabatu zituzten.

Elizak, iraultzan zerikusi zuzena izan zuen; esaten denez, eliza izan zen jende arrunta iraultzara mugitu zuena. Ipar amerikarrak oso elizkoiak ziren, mundua elizako legeen arabera interpretatzen zuten, eta gerran, indarra hartzen joan ziren heinean, elizarekiko fedea ere handitu zitzaien. Eliza esaten

dugunean ordea, ez dugu eliza katolikoa esan nahi. Garai haietan, gehiengoa, protestantea zen, batez ere Britainia Handitik (Europako beste estatu askotatik ere bai) erlijio askatasunaren bila joandakoa.

1786an, erlijio askatasunaren legea argitaratu zuten, Jeffersonek zioen bezala, "gizabanakoen eskubideek ez dute zerikusirik iritzi erlijiosoekin". Lege honekin batera, ordura arte nagusi ziren erlijioek behera egin zuten eta beste hamaika erlijio berri agertu ziren, aipagarrienak metodistak eta baptistak izanik. Hainbeste pentsamendu berri sortzeak, euren arteko konpetentzia areagotu zuen jendea erakartzeko orduan, eta hori, bai esklabo eta bai emakumeentzako mesede ikaragarria izan zen, pixkanaka-pixkanaka gizartean sartzen hasi baitziren.

Baina guzti hauek baino garrantzitsuagoak dira, beharbada, errepublika izendatu eta lehendabiziko urteetan azaldu ziren arazoak. Konfederazioa bere zereginak betetzeko ahulegia zen, eta artikulua etengabe aldatzen zituzten. Estatuetak biltzarretan talde desberdinen interesen arabera hartzen ziren erabakiak, batzutan baten mesedetan, bestetan beste baten mesedetan... Askok, egoera horri, "despotismo demokratikoa" deitu zioten, eta azkenean, beste herrialdeetan gertatu zen gauza bera gertatuko zela iragartzen zuten (eredu gisa Britainia Handian aipatuz). Izan ere, iraultzak estatuen biltzarrak demokraziaren gorengo mailara eramane zituen: askoz jende gehiagok parte hartzen zuen biltzarretan, eta gehienak gizarte maila baxuetakoak ziren, politika mailan inolako esperientziarik gabeak. Baldintza hauetan, interesek etengabe egiten zuten talka euren artean, eta ondorioz, legeak ere, etengabe aldatzen ziren.

Egoera honetaz jabetzen hasi zirenean, estatuak euren konstituzioak aldatzen hasi ziren, eredutzat Massachusett-ekoa hartuz. Kongresuan ere aldaketak egon ziren, buruzagi berriak ezarriz. Horrela, aurretik aipatutako inflazioari eta arazo ekonomikoari aurre egiteko zein egoera politiko kaxkarrarekin amaitzeko, planteamendu berrietara jo zuten. Hala ere, ez zuten inolako hobekuntzarik lortu, estatu bakoitzak bere politikarekin jarraitzen baitzuen. Egoera gatazkatsu honi, ia estatu kolpe bat batu zitzaion, tropak, gerra ordainak ez kobratzearen oso haserre zeudelako. Azkenean, George Washington-ek berak parte hartu behar izan zuen amerikarren historian lehen estatu kolpea izan zitekeena eragozteko. Egia da, AEB estatu bakarretakoa izango dela botere aldaketarik jasan ez duena indarkeriaren bitartez, baina, ikusten dugun bezala, horrek ez du esan nahi hortik urruti ibili direnik.

1786an, Kongresuaren artikuluek aldaketa behar zutela erabaki zen, egoerari aurre egiteko. Hurrengo urtean, Filadelfian batu ziren ia estatu guztietako ordezkariak. Guztiek nahi zuten gobernu zentrala indartzea, baina ez modu berdinean (eta gutxiago gero gertatuko zen bezala). George Washington izendatu zuten Filadelfiako konbentzioaren buru. Behin denak elkartuta, izugarritzko eztabaida hasi zen. Batzuek gobernu zentral indartsu bat nahi zuten, erabaki guztiak hartzeko indarrarekin, estatuak, orduko probintziak bezala, gobernu zentral horren pean mantenduz. Beste batzuk, ordea, ez zuten horrelakorik nahi, gobernu zentrala bai, baina inondik inora ez hain indartsua, gehienez ere, zergak ezartzeko indarrarekin. Azken hauen ustetan, horrelako

estatu batek ordura arte gerran defendatu zuten guztia hankaz gora utziko zuen.

Hala ere, azkenean, konstituzio berria idatzi zen. Konstituzio berriak, gobernu zentral indartsua ezarri zuen, presidenteak eta senatuak izango zituztelarik botere nagusiak. 1788an, eta rahiz eta Iparraldeko Karolinak eta Rhode Islandek ezetz bozkatu, New Yorkek konstituzioari baietza eman zionean, Estatu Batuek gobernu berria eratzeari ekin zioten.

Gutxi gora behera, liburua hemen amaitzen da. Beharbada, iraultza izan zena, momentu honetan amaitutzat hartzen du autoreak (bere arrazoiak izango ditu), baina esan beharra dago, estatubatuar historiaren hurrengo aldiak ere oso interesgarriak direla. Norbaitek pentsa dezake, behin gobernu berria eratzeari ekin ziotenetik, guztia arrosa kolorekoa izan zela, baina errealitatetik oso urruti geratzen da hau. Oraindik hainbat arazo zeuden ongi lotu gabe geratu zirenak, eta horiek, denborarekin “zeresana” ekarri zuten. Garrantzitsuenak aipatzearen, hor zeuden esklabutza eta mendebaldeko lurren jabetzaren aferak. Azkenean, guztiak pilatu ziren, eta estatubatuar gizartea bitan zatitu zuen. Honek gerra zibilera eraman zituen lau urte luzez (1860-1864). Gerra zibilak, aurrekoek bezala, izugarritzko sarraskiak eragin zituen eta 60.000 hildako utzi zituen bidean. Ondorioak, oso desberdinak izan ziren. Alde batetik, gobernu zentrala indartuago irten zen, eta, bestetik, esklabotzaren aurkako lehen erabakiak hartu ziren (teorian onak, baina praktikara eramaten kostako zirenak).

Hitz gutxitan esateko, hauek izan dira nik liburua irakurri ondoren jaso ditudan inpresioak. Orokorrean, oso interesgarria iruditu zait eta asko ikasi dut berarekin (edo irudipen hori dut behintzat). Egia da, baita ere, irakurtzen hasi aurretik, oso gutxi nekiela gai honetaz, eta beraz, orain dakidana, liburuari esker dela. Hortaz liburuak zerbaitetarako balio izan dit. Iraultzak balio izan zuen bezala. Zerbaitetarako balio izan baitzuen, ezta? Batzuk hala diote. Bide berri bat ireki zuela, askatasun gehiago lortu zela, berdintasunerako pausu handia izan zela, antzinako ohiturak gainditu zituela... Ni ere iritzi horrekin identifikatzen naiz; baina nire ezjakintasunetik zerbait esan badezaket, zera da: liburuak aipatzen du nola, iraultza ostean, amerikarrek euren burua herri aukeratu bezala agertu zuten, munduko bakearen zaindari izendatu zutela... eta gaur egunean ere, euren presidentea hizketan entzutean horrelako gauzak esaten dituela nabaritzen dugu. Gauzak asko aldatu ziren, eta asko aldatu dira, baina beste batzuk, ordea, oraindik badiraute.

Unai Belaustegi Bedilauneta